Euzkadi

GOIZPARRA

Beinola Jesus menditik yetsi zala, gizatalde andik yarai eutsan atzetik. Eta gizon legenardun bat urreratu yakon agurtuaz eta esanaz: "Jauna, gura ba dozu, sendatu nagikezu". Jesusek eskua luzatuta, ikutu eban eta esan eutson: "gura dot; garbi zadiz" eta bat-batean legenar gabe garbi aurkitu zan. Gero esan eutsan: "ez iñori aitatu; baiña zoaz abadeengana, ta Moisek agindutako eskeñia emo-eutsezu sinisgarritzak".

Eta Kaparnaum'en sartu zanean, eun soldaduen buruzagi bat ondoratu yakin oiuka ta esanaz: "Yauna, morroea etxean elbarrituta daukot eta larri dago. Jesusek esaten deutso: "yoango naz eta sendatuko dot. Baiña eunburuak erantzun eutson, iñoala: "Yauna enaz ~~ zu nire etxean sartzeko; baña esazu itz bat eta sendatuko da. Bada neu bere besteren menbekoa naz, baiña ba ditut nire agindupean gudariak, eta batari esaten deutsot: oa, ta yoaten da; besteari "ator", eta ba dator; urrengoari "egik au" ta egiten dau". Itz oneik entzunda Jesus asko arritu zan, eta yarraileai esan eutsen: egiz diñotsuet, ez dot Israelen bertan be, ain siniste andirik aurkitu. Esaten deutsuet ganera: etorriko dira asko ta asko eguzki-sartaldetik, eta Abraham, Isaak eta Yakobegaz yezarriko dira maian, zeruko erreiñuan; baiña erreiñuko semeak kanpoko illunbetara yaurtiko dabez: an izango da negarra ta agin-karraska". Gero esan eutson eunburuari: "zoaz, eta sinistu dozun lez egin bekizu". Eta ordu atan bertan, morroea sendatua izan zan.

BERMEO

ARRAINTZALIAK

Iru egun onetan itxasua ondo emokorra izan da ze untzirik badago, laureun (arrua) papardo koxu dabenik. Gaur ez dakit zer esango dau. Edertasunik, naikoa egonda egunotan kaian.

ABESLARIAK

Amar enbat gazte dabiltza Almika auzonian Agate Deunaren abesti samurrak ikasten Artetxe'tar Pausta Almikako txaunkilaria irakasle dabiela. Txaluak zuri abertzale maitea, eusko ekandu zaarran jabolia.

Ez dot uste errian aldrarik batuko danik atxiñakua lez, Agate Deunari bere zoragarriak abestuteko. ¡Ze tamalgarri andia!

EZKON DEIAK

Igandian, Almikako Ama Neskutz'aren txadonian, juan jakoz Ormaetxebarria'tar Toma Mintegitxu" etxeuntzekua Ateka'tar Keronime "txinbelanekoagaz"; biek Arro ategi auzokuak. Baita txadon onetan. Madariaga'tar Nartziso "Zulueta'koa", Elorriaga'tar Prantzeska "Arreta"koagaz. Gustion nere zorionak.

URKIDI.

Yasoten dodanean argitaratuko dot.—O.

ZARAUTZ

¿URRENGOA NOIZ?

Iragarrita zegon bezela larunbatian antzeztu zuten emengo "Cine Modelon" Donostiko Eusko Etxeako antzerlari yayuak. Oste aundiya izan zan "Mutil zarra" ikusten eta baita ere pozik geldit u bertan ziran guziyak. Ia bada urrengoa noizko antolatzen dezuten bada ikusiko zenduten bertako jendeari nai baño azkanago igaro zitzaizkola bertako bi ordu ayek. Nola ez bada, orrelako antzezlari jatorrak egiten dituzten lanak ez du iñortxo ere asperteen.

Baita ere antzeztu zuten "Etxeko" bi neska txiki politek, oriyen izketako lasaitasuna eta senkaten gatzak oso txoraturik utzi ginduzan batez ere Arzeluz nestatillak onen gogua etxeko andre izateko eta iruditzen zait egunen balian Jaunak osasuna ematen badiyo ez dala makala izango. ¿Ez al da egiya, Luzear?

Baita ere eskerrak ematen dizkagu, Barrena jauna eta beste berakin sayatu diran guziyari jai eder abek antolatzen, eta ikusi digu onelako zer eginak egiteko onelako batzubek biar dirala.

¡Abejaindeikela, Illari! ¡ bezelako beste ez dituk erri guziyan.

ZALBIDE.

BONOSTIA

"KIRIKIÑO" (G. B.) ZANAREN OMENEZ

"Kirikiño" jaio ta il dako etxean arri idazkun bat jartzeko. Arpidearen lenengo emaitzak.

Agirre'tar Joseba Mirena, 5 laurleko; Labayen'dar Andoni, 5; Egaña'tar J. Imanol, 2; Arostegi'tar Joseba Mirena, 2; Ugartetxea'tar Donata, 2; "Atarrene", 3. Orain arte, 19 laurleko.

AGURTU

Gai abetan emen agurtu ditugu: Mutrikuko Andonegi ta Zumalabe; Eibarko ...egi, ta "Lizardi", "Ayanbe", "Orixe" ta "Artibai" idazleak. Baita Zarauz'ko Barrena senar-emazteak eta beste batzuk ere.

"KIRIKIÑO" SARIAREN SARIKETA

Lengo aldiz emandako "Kirikiño saria", "Orixe" azkarrak irabazi du. Astelenegunian, Eusko ikaskuntza aretoan, Urreta jaunaren itzaldi baten ondoren, "Orixe" jauna, bere eusko idazlan "Iruzak" deritzaiona saritua izan dalako, 400 laurleko duen sariaren jabe egin zan. Zorionak. (1)

ZAINDARI JAIAK

Igaro dira uriko zaindari jai zalapartatsuak. Aurten orrengatik eusko usai ederreko jaiak ere izan ditugu. Astelen gabean Euskadin bezi giñala "Amaikak bat" kideko batzokiak aitortu zigun txistulari sall andi bategaz Eusko Gaztediko ezpatadantzariak yaigo gure dantzak dantzatuaz kale guztiak ederra egin zuten orrela beti euskotar "Amaikak" tarrak.

Estropadak ere izan ditugu bai "Elai Alai" ta eusko antzoki jaiak ere. Aurten zerbait eginda ia urrenguan geiago egiten saiatze geran.

"ELAI ALAI" JAIA

"Kursaal" antzoki beterik, pozik ikusi dira (al izan dutenak) Gernikar talde auen lana. Maitati txalotuak izan omen dira. Aurrera pozgarriaren jabe dira noski ta ... Donosti ontatik irten dira, ¿ezta?

E. ETXEKO ANTZEZLARIAK

"Orfeon Donostiarra", aretoan giñan Agustin Deuna illunabarrian eusko antzoki jaia antzezten.

"Bost urtian" ta "Ezer ez ta festa" zala ta, zapeldun andereño gazte ta areto oso osoa betetzen zuben jende ederrak, naiko par egin ta ondo txalo jo zuben.

Guztizko ondo artu ginduzen. Eskarrik asko.

EUSKO ETXEKO ANTZOKI JAIAK

Biyar arratsaldeko bosterditan, 13 garren jaia E. Etxean Antzeztuko dira. "Amal dar..." euskeraz ta erderaz; "Etxietan" Alzaga jaunaren omen jaian, Victoria Eugenia antzokian antzeztu zuten Egaña ta Artzeluz nexkak; ta azkenean, "Itxura bai eta ezer ez" oso antzerki pareragillea.

ORRI BELTZA

E. Etxeko bazkide dan Etxeberria'tar Bingen'en aita il da. (G. B.)

AUTESKUNDEAK

España'ko aldun izan naia nabaitzen da. Batetik "derechistas" dirala ta "democracia" tarrak bestetik, zerbait iritxi nairik saio dira. Abertzale artean ez da oitarako zalerik ikusten, guziak orain makur ta legun ba datoz ere gure arerioak dira ta ez dira urtiak alperrik igaro "Derechista" izene an noski Tolosan Pradera dijuala diote ta ain "derechista" dala ta "abertzaleak oni autarkia eman? ¡ez ortan egon! "Democracia" tarrak ere onen antza ba dute guziak Madri zaleak dira ta. Entzun dan ez Donostiko "derechistak".

Egunak dijuazen bezela, beste izen batzuek entzungo dira, bañan oik ere, oraingoen antza izango dute noski.

Abestiak ez dira alperrik sortu. Oraingo au, ezta aldi ontak sortu, bañan, ¡bai egoki datorrela!

Ortik ibilli, ortik ibilli
Maria Pandango
"Konposiziyorikan" gurekin
ez dezue izango.

ATARRENE.

(1) Eskerrik asko.

Orri onetan euzkel iragarkiak ikusten dabezan irakurleak iragarkia ipiñi dabenaren etxean erosi gurako dau, beragaz ulertuteko euzkeraz izpartuten dana ba analetzat eukiko dau.

MAÑARI

"KIRIKIÑO"-REN OROIMENEZ

Lenguan egon ziran emen, "Kirikiño" zanaren oroimen jaya atontzen etorrita Jemein'dar Keperiñ eta Garate jaunak. Abertzale sutsu oneik, beste askogaz batera egun aberkoi ori gertetan zintzo diardue; ta euzko biotz guztijak poztzeko laiñ anditasun jayari emon barik eztira gelditukо.

Egun orren zain, jentia pozik dago. Emeko alaba bik, esku-zabalez, eleiziari bezutz edo erregalu ederrak egin dautsoez; ta gauza eder orrek, eleizan lenengoz, omen jai orretan agertuko dira. Ta eleizea txukun eta ederto agertu daiten be, batenbatzuk biarrian sendo daragoijoe. Geldirik eztagoz beintzat.

"Oldargi" ta enparau gauzak ikusteko be poza ba'dago.

DABILTZANAK

—Santurtze'tik etorri ziran Bartzena'tar Agapita emaztiaz ta Kapanaga'tar Danele llobiaz.

—Ereño'ra juan Bernaola'tar Bitor.

—Eibar'era Zabarte'tar Telespor eta Kapanaga'tar Baleren.

GEIXUAK

Geixorik dagoz Ozerin'dar Peli ta Berribbeitia'tar Ander gizonak. Ariñ osatu.

SAN ANTON

Igaro zan larunbatean Kurutze-Santu'ko ermintan, Andoni deunaen aldaran, meza abestu bat emon zan. Lagun asko batu zan.

Urkiola'ra be ainbat juan ziran.

"JAUNGOIKO-ZALE"

Aldizkingi eder au "Tene" idazleme gorenguaren "Sukaldeko Iztegia" deritxon idaztia zatika argitaltzen asi da. Lenengo atala, aldizkingi onen azkenengo zenbakijan ikusi gendun; eta oso atsegiñ izan yakun. Emakumientzat berebizikua da. Zorionak "Tene" idazle jatorrari.

MAÑARIKO.

OTZANDIYO

"OLDARGI"

Igandian izan giñan Bilbao'n "Oldargi" antzezkizuna ikusten. Emakume eta gixonezkuetan ,berrogeta amaenbat aurkitu giñan. Egun benetan zikiña, izan gendun eta onegaitik, bide labana izan zan. Au dalata, erri onetatik urten eban, belbil bietatik batek, beste bategaz alkar jo eban, zorionez, garrantzi andiko zauririk baga, Bingen "Flako" bakarrik, bekokian, apur bat zauritu zan.

Eldu giñan "Campos" antzerkira, estu gero eldu be, entzun orduan sarrerako txartelik ez eguala! Baña onela etzan. Bilbao'ko "Euzko Gastedijak" gordeta euki ebazan guretzako txartelak. Eskerrak berari.

Sartu giñan barrura eta erritar, guztiori alkarren ondoan egotea otu yakun. Au bai poza! Emon eban asiera eta estu gengozan ba geure erriko argazki enbat ikusi artero. Alako enbaten urten eban, erri onetako deun Erroke'n txadona, bertako bederatzi urrenean abestuten diren abesti eta abar. Bateri eta besteri entzuten yakon, ori txadona eta eleizkizunok, Bizkaikuak ez padira? Otzandiyo kuak ba dira? Egiya zan izan be. Au bere amaitu zan. Urten biar eban ba urteteku orrek. "Herreros de Otxandiano"! ¡Gure poza! Adurra be urten egiten eustan pozaz! Zugaitik esan ez?

Asi dira ba lanian edo izketan, Juantxu eta "Ederra". Baña erderaz! Juantxu erderaz? bai, eta "Ederra" be bai. Ze ituna zan auxe, erdera egiten ostan erriko neska mutillak, alkarrekiñ erderaz egitea!

Baña tira. Etorri ziran langillak, bai lanian ekin bere, Txeru abestuagaz. Batek egiten eban, orrek guk baño astiroago egiten yuek lana. Orrela egingo bagenduk, eleuskiguk itzerdirik urtengo, e "Juantxu"? ¡Ez orrek etxue potixetik urik edaten...

Onen ostian, egin zan laugarren santa "Mañu" eguna. Auxe bai ederto! Azkenian agur ederra abestu eben. Nik limonada utsa baño ez neban susmetan uste neban, Otzandiyo ber bertan nengoala.

Antzerki onetan lan egin dozuen guztiori esker ugari yak opa deutsuedaz. Yatez bere neskatillai. Arek ziran anka ariñak!

Urratxuago izan banitz, zeozer esango neutsuen baña... urrengorako itxi biarko dot.

YANTZA

Igandian egin deusku yantzan Andoliñ anaiyak arrokeriya ba eukian ugari, ondo egiten dalakoan baña, an gengozañak "moro" artian gagozala uste genduan, besoak gora bera ta ankak geldi ikusi orduan.

Antolintxuk uste deu
gorputz ta arinetik,
bera lako yantzarik
ez dagola inundik.

Ai Antolintxu, ai!
erratuta zagoz!
ba erriyan zuretzako
Bost euneko gagoz.

Ainbeste urte yantzan ta
orain ikasi ez?
latzaz gorde nitzake
baneki nik zu lez!

Antxiña zu zer ziñan
nik ez dakit ezer,
antza daukozunalez...
gaztetan bez ezer.

ANDIKONA.

GERNIKA

ELAI-ALAI

Geure eleitxu kutunok emen doguz, Donostira osterea egin ondoren.

Kursal antzokian txalo ugariak entzun eta donostiar anayak ondo baño obeto artu dituez, eta ederto ibilli eta poz-pozik biurtu dira.

Geure kalietan itxi euskuen utsunia gaur barriro beteaz, alaitasuna alde guztietan zabaldu dauskue.

Zorionak Elai-alaiko neska-mutiko guztiai, eta batez bere, euren asmatzalle eta artezkari dan Olaeta adiskide maiteari.

JAYOTZAK

San Nikolas'tar Mateo eta bere emazteak seme barri bat ekarri dabe eta Begoña izen gozatsua ezarri dautse.

—Baita Zabalbeaskoa'tar Toma eta bere emazte Larrañaga'tar Andonek be, bigarren semetxua izan dabe.

Zorionak bitzuori.

ERIOTZA

Tarrant bat konpontzen iñarduela, soñekuak sua artu eta il zan, igaro zan astian Omaetxebarria'tar Berrando, "Larrondo" basetxeko mutil gaztia.

—Atzo il zan Dondiz'ko Mari-Jesus andera zaarra.

—Aldi luzean geisorik egonda, gaur il da Urzuruaga'tar Kandido mutil gaztia.

Gernika abes-batzakoa zala-ta, bere il-obiratzea abes-batza onen ikurriña eroan dabe.

Artu bedi bere guraso eta arrebak, geure benetako tamal agurra.

AGATE DEUNA

Geure euskotar gernikar gazteak piskatxu bat bizkortzen azi diran ezkero, eztabe, aurten, Agate-deun-abeslari taldetxoen bat gertuko? Tamala izango litxateke ba.

"KIRIKIÑO"-ren OMENEZKO ARPIDIA

Zabalduta daukot, neronek, eta orain bildutako laurlekoak onexek dira:

Gangoiti'tar Damen, 5 laurleko; Altube'tar Seber, 5; O.'tar J., 2; Bermeotar bat, 5; Belu-mendu, 3. Guztira, 20.

BELU-MENDU.

MUTRIKU

ITXAS BERRIAK

Arrantzalliak "papardua" edo dalako arrain ori ugari ekartzen dute au idatzi detan egun onetan (9848 kilo) ekarri dituzte 8 lurrun ontzik ezan leike arrantza ederra dada, saneurria berriz egin du 0,34 ptas. arrantzaliak gitzitzak daukate ori.

ORRI BELTZA

Elizakuak artu ondoren jaunak berenganatu du. Etxeberria'tar Marzelo Luistar zintzua nere samin agurra beren sendikoari ta otoi bero bat bere gogo alde (goian bego).

NASTU TA LABUR

Emen egun batzuek igaro ondoren juan zaigu Azpeitira Pison'tar Matea. Oro bat Mendizabal'tar Zelestino Donostira Iriondo Juan ta bere emazte Arrizabalaga'tar Josepa.

EZKONTZA

Juan dan igandean deitu ziraden Elizgarai'tar Kreszenzio ta Flores'tar Maria Frantzisko. Zorionak ta ustari on bat opa dizuet.

JAIOTZA

Urreisti'tar Anjelino'ren emazteak alabatxo eder bat izandu, ama ta umia ondo argitzen dira.

GAIXORIK

Gazteiz'tik etorri zaigu bere makal aldian Mendizabal tar Seberiano apaizgai azkarra, aguro sendatzia opa dizut.

Orobat entzun degu Madrillen larri samar argitaen dala Belaustegi'tar Juana. Ia aguro alkar ikusteko moduan argitzen geran.

ONTZI BERRIA

Barrenetxea'tar Juanito'k ontzi berri bat egin du Pedro Manuelen ontzi gintzan lengo egun batean bota ta "Bermeo"ra eraman zuten bere tresnak jartzera.

NOIZ-BAIT.

ZEANURI

DEUN ANDONI EGUNIAN

Urtero lez iru abadegaz jaupa abestua euki gendun Andra Mari txadon nagosian. Eraspen andia dagola Andoni Deuna'gana egiztu eban etorri zan oste andiek.

GOGO-IÑARKUNETARA DATORREN ILLEAN

Ogetaka gizonezko yoateko dira J. 1. Durango'ko Josu-laun etxera ejerzisioetara

ERIOTZAK

Uriben il da 82 urtegaz Txabi Iturria, Auzune edo Kofradietara ibili be ezin Altzuagan Mendia'tar Pantzeke andrea 53 urtegaz Matxin Bingen'en emaztea. Alkiber'en Beobide'tar Erramon 90 urte dabezala. G. B. danak.

Gure tamal agurra sendi guztiari. Da otoi irakurlea auron arimeen alde.

ERRIKO BATZAR NAGOSIE

Egunotan euki dau udalak batzarra igaz ko gora-berak ikusteko.

LANDARA IPINTEA

Euki dabe urtero lez Agate Deuna'ri yagokon bere ermita ondoko bazoan. Ipiñabu, Ibergotxi, Ipizar Lanbreabe, da Atxondo'ko yenteak.

ORREIK BIDEOK

leike neguan beintzat. Undurraga'tik gorantza Olabarri ondoan neskatille batek txorko altudun ozkiña lupetzan galdu ei eban da gero ezin aurkitu aze ondo.

ABERTZALE ARAZOAK

"Kirikiño"-n opaz egiten dan yairako arpidea bidaldu gendu Bilbo'ra. Da alegindu gaitezan idazle danok al'bada egun orretako batzaldirako urreratuten.

Batzokia ipinteko ormak botaten diardue Atutxa'ren etxean. Zeya'ra begira leku polita izango da.

DEUN AGATE ABESTIAK

Urtero lez ba dabiz mutillak abestiak aurkituten ikasteko. Asko dira emen bizitza osoa abestuten dabenak. Orain urte batzuk dirala "Zidorra" euskel idazle egin ebazan abesti politak irarri genduzan da 500 orri edo danak saldu edo egin ziran. Baña batzen danetik meza bat Deun Agate'n ermitan. Ezaukieri ukar edo limosna egin da abar... Dana urdalla barik.

Ara mutikotxo txiki bateri entzun dautsedan abestia.

Agate deuna batzean gatoz
igazko mutil kozkorrak,
Artu gagizue pozez beterik
diru ta arrautzak emonaz.
Andi andiak izan ezarren
txiki txikiak ezkara
Dotrñe ta musikea ikasten
nausiak beste ba'gara.

ASMU EDER BAT

Emendik urin eztagoan errien eleiz orria atara dabe ementxe lez. Zorionak, ba.

Baña beste asmu bat ei dago Arratia'ko errietarako illeroko izparringi bat ataratea Ori aurrera eroateko batza bat egin bearko litzake. Izparringi ori jakiña, euskera utsean. Siñezteko jayak lugiñ gayak bizi moduko gauzak. Oiturak abestiak saldu erosiak. Feriak ta abar berau izango litzake zaletasuna geituteko euskera irakurten da olan salduko litzakez euskerazko idaztiak geyago aldikarien arpideak ugaritu da abar... ixena. "Arratia'ko Deya" egokia zer deritxoe beste errietan asmu oneri.

"OLDARGI" IKUSTEN

Igandean emendik yoan zezenak oso pozik etorri ziran. Bilbotik antzezki polita ikusita.

Baita poztu gara Bizkai'ko euskeltzaleak batzarra euki dabela yakin dogunian.

BASERRITAR BAT.

ABANDO'TIK

"KIRIKIÑO" (BUSTINTZA'TAR EBAISTA) ZANAREN OMENEZ

Datorren otsalla'ko lenenguan (J. l.) gizon on eta ospatsu onen aldez, jai batzuk egingo dira bere jayoterrijan eta antziñeko Tabira'n. Bilbao'ko Euzko-Gastedija'k eta Durangotarrak artu dabe ardurea egiteko, ta danok lagundu biar dautsegu zor andija daukagulako, ta oraintxe eldu yaku ordainduteko aldija.

Ia ba, euzkeldun gustijak, otsalla'ko lenengo igandian, Mañaria'n batu garan: Erri gustijetatik ara pilloka juan biar gara, naiz euzkel-idazleak, naiz euzkeltzaliak, eta, batez be, Kirikiño'ren ikasliak ixan giñianak!

¡Mañaria! Euzkadi'ko erri polita, txoko kutuna ta maitia, egun orretan or ixango gaituzu, zure Kirikiño seme onaren aldez zerbait egiteko; ezta gauza andirik ixango, baña dana-dala biotz-biotzez opa ixango dautzugu, abertzale andija ta benetakua ixan zara-ta.

Beren aldez betiko argitasuna.

URDIOLA.

OÑATI

MAÑARI'RA BEGIRA

Eguna urrago eta gogua poz eta alayago. Mañari'ra juateko. Iñoiz edo bein, Urkolara, andik gora juan dan en batek irakurtzen badau ataltxo au, esango dau bere artian: ¿Ataltxo a uidatzi dabenak zer poz euki leike Mañari ikusteko? Durango'tik Urkiola'ra bitartian dagoan ereitxiki bat bada. An ez badago ez "Ola" aundirik iñungo idazkola aundirik, ain gitxi itxosi eta kayarik, ¿zer ikusteko poza euki leike Mañarin? Ala da, bai, an ezdago, "Ola" aundi itxaso eta kayarik; baña bai, gauza oyek begin asko edo geyago mate degun gizon, euskaldun, abertzale eta kristau zintzua izan zanaren soin illa, angotxe illobitegian lurraldua. Bustintzatar Ebaista G. B. "Kirikiño" izan zana. Abertzaletasunen apurrik daukonak "Kirikño"-ren izen ona goraldutzia biartuta dago, baikotzak berak alduan eran. Alduanak Mañarira juanda eta bestiak duden eta dabiltzan tokietatik; bañak aldegunok juan gaitian bertara bere illobi aurrera otoitz bero bana egitera, eta era berean bere emaztea agurtuko degu, il zalako biotz miña agertuko diogu, eta gizon argia eta ona izan zalako zori onduko degu.

Oraingoz zazpi bildu gera "Gogorra" zure gain guretzako bazkariak, geiago biltzen bagera gariz oartuko dizut. "Lekobide" ere gurekin degu "Aberri" andra geiak ez eidio eragozpenik jarri ta. Arpidia zabalik dago, ezer nai duanak eman agertu dedilla Euzkadi zaltzailliagana.

OLAITURRI.

ELANTXOBE

Ebakuntza gogor baten ondoren ilda Yaungoikuaren besuetan ene lagun eta aberkide maite Gametxogoikoetxea'tar Markel, on-ona.

Sabin gure maixuaren aizkide ona izan zan eta Bilbao'ko "Euzkeldun Batzokiko" bazkidea. iZndua era guztietara eta sakona benetan bere siñiste eta Aberriaganako maitetasuna.

Edonoz eta edonun erentzun eutsen maitetasun bi oneri, gogo biziz arakaturik gure edesti eta eskubidiaren aztarrenak. Entzun neutsen zarri Euzko Gazterikoeri iñoz abertzaletasunaren iturri garbia loituko bazan Elantxobe'ko botikan aurkituko zala garbi-garbia. Aundia da erri guztian itxi daben samiña bere uste baako eriotziak baña aundiagoa benetan bere emazte maite-maite eta sendi maitekorrak daben oñaze gordiña ordu larri onetan.

Asko eta asko gara lagunduten dautsugunak biotz-biotzez atsabe ain aundian eta otoi samurrak yagiko doguz batez be abertzaliok, Yaungoiko on-onak betiko zoriona emon dagion Markel'en goguari eta baita gentza oso-osua zuen biotz zaurituari be. (Goyan bego).

MUXIKA

DURANGO-MAÑARI'N

Aurten be aurreko urtietan ez or ixango gara datorren igandian otsalla'n 1'gn. J. l. Eta "Gogorra" maite zenbatu bost-bat baz kaldar erri onetatik besterik baida gaztigauko dogu aurretik.

Eta nundira erri onetako euzkel idazle "Pardil-Erreka", "Berri", "Pelikita" "Txareta'ko-Sorgiña", "Kuku", "Eizari", "Kirikolatza", "Arantza bat", "Atxondo" ta abar. Ia mutillak bizkortu eldu dago egiñenakin ezautzeko aldia bada ez Koldartu, Koldarderijak jaurtita asarri agertu baño. Kirikiño gure irakasle ta euskeltzale andija jayo ta ill zan etxietan bere omenez arri idazkunak ipinteko arpidia zabalik dago, eta erri onetan emon gura daunak erestasuna euki dayan neuk zabaltzen dot.

Bizkargi-mendik, 1 lauerleko; Enbeita'tar Kepa, 4.

JAYOTZA

Dunabeitia'tar Bitor eta bere emazte Beaskoetxea'tar Gabirelek alaba barri batekin geitu dabe euren sendija. Zorijonak.

JUAN ETORRI

Bilbo'ra juan dira gogo-iñarkunak egiten, Petralanda'tar Karoliñe, Sardui'tar Antselme, Enbeita'tar Bingene, Enbeita'tar Miren, Urkitza'tar Keskentze, Uribe'tar Kuruike, Bilbao'tar Jenare, Sardui'tar Gergore, Bilbao'tar Iñake, Irigoyen'tar Aintzane, Ealo'tar Kalare, Bastaretxea'tar Gotzone, Irazabal'tar Seberene, Elgezabal'tar Basilixe, X.'tar Gabiñe, Apraiz'tar Eulali, Bastarretxea'tar Miren Koldobike eta Arbe'tar Jenare.

Urkiola'tik etorri dira Andoni deuna'ri bederatzi urrena eginda Beaskoetxea'tar Jakinda, Garabieta'tar Paule, Egilleok'tar Bituriñe, ta Elgezabal'tar Eusebe.

Zeanuri'tik Etxebarria'tar Firmin jauparija. Ondo etorrijak.

ARBIÑA'N

Igande gabian barriro be lurak berantz eginda bultzibidia estalduta gelditu zan au dala-ta Bilbao'tik Gernika'rako azken bultziak Zugaztietan gelditu biarra izan eban. Orain Bilbo'ko su itzalarijak euren ur jaurtiteko tramakuluakin diardue lurrok urari emoten au dalata sekuleko urak daukiez Oka'tik Gernika bitartekuak naiz aberientzat ta naiz lesibak eiteko eskerrak orbitarte orretan bizi eztirana aldibateko Ballarin, Gandarias ta abar, bestelan "Higienikua" ur ori.

BIZKARGI MENDI.

EGUNEKUA

Euzkadi'tik

"KIRIKIÑO" ZANAREN OMENEZ

Datorren igandean Mañari'ko erritxuan egingo dan jaya ezta edozelakoa izango. Zaletasun bizia dago jai ori egiteko. Erderaz argitaldu da egitaraua ta irakurri daben guztiak txalotu dabe. Durango'ko Tabira antzokian egingo dan ikusketa obea izango zan an toki andiagoa egon bazan, baña txikerra dan ezkero ezin egin daitekez lauki guztiak. Au ta guzti bere ezta gauza txarra izango an egingo dana, gauza ikusi eziñik iñoiz ezin egin daike ba "Euzko Gastedija"koak eta. Len bere esan dogu baña barriro azaldu gura dogu Durango eta Mañari'n bat ezdaitela geratu "Kirikiño" zanaren liburu bat erosi barik. "Bigarrengo Abarrak- izan daitela guztiak etxera daroan kutuna ta jai orren gomutagarria.

"Eskualduna" asteroko ederrak lerro batzuk dakaz "Orixe" jaunak argitaldu daben Mireietzaz. Ona emen jartzen dogu:

MIREIO

Zer da Mireio?

Zer den Mireio? Huna, bihitzez:

Liburu berri bat frantses-erdaratik *Ormaetxea'tar Nikola "Orixe"*-k bere eskuara polliterat egun hautan itzulia...

Ehun urthe du chuchen chuchena "Maillan"-en sortu zela Mistral deithu muthikottoa. *Leen urteak bordaldean bakerik ian zitun, nekazari, segari ta artzai tartean* dio "Orixek". Bederatzi hamar urthetan abiatu zen eskolarat, bainan maiz pipher egiten omen zuen. Horra zertako aitamek *Avignon*-erat igorri zuten nausi berri batzuen ganat. Hauiekin gustu hartu zuen liburueri. Geroztik Mistralek egin zuen bide. Ez dugu uste munduan baden libururik harek egin duen "Mireille" delakoa baino ezagutuagorik! Jada hainitz mintzaldietarat izulia zen: orain "Orixe" ri esker Eskuaraz ere badugu... "Mireio" da bakarrik "Mireille"-n orde. Zer ichrorio pollita eta zoin polliki kondatua! Liburu gisa guzietarat gustagarria. Achala eta mamia bardin ederrak ditu. Eskuara den gutieneko bat errechago balu, Eskualduneri erran beharko litzaiokete nihundik ez direla liburu hori erosi gabe heyen egin bide zorrotza dela erostea! Hola-hola ere hainitzek segur eskuratu nahiko dute, supazterrean irakurtzeko batzuek, beren liburutegian altchatzeko bertzeek. Nihori etzaio urrikituko.

Dena dela "Eskualduna" ez dagoke gain-gainetik laudatu eta zeruetan gora altchatu gabe. "Orixe" hainitz Barbier hainitz, Oxobi hainitz, Léon hainitz, Lafille hainitz, Zerbitzari eta "chokoko artzaine" hainitz. Berritz nola pizkor eta hedatuko litaken Eskuara maitea! Oro ez ditazke eskual idazle paregabe horien heinerat hel, segurki, bainan orok zerbeit egiten ahal dute Eskuararen alde, jaun horien lanak erosiz bederen! Horren galdetzea, zueri sobera galdetzea othe da, Eskualdunak? Nik ez dut holako beldurrik...

Haur Prodigoa.

ABERTZALE ARAZOAK

Abertzaleak eztagoz lotan aspaldian. Erri askotan zabaldu dabez Batzokiak eta len bai len jelkidetuten dira. Batzokiak zabaldu dabezanak txaloak meresi dabez, baña oraindik ezer egin barik dagozanak pizkortu daitezala. Biderik egokiena auxe da abertzaleak egiteko ta asmo onatan iraun eragiteko bere. Batzoki bat errian guztiak alkar ezautu ta alkarren leyan lan egiteko dira.

España'tik

IRARLARIEN OPORKETA

Batu dira barriro irarlariak eta ugezabak alan edo olan oporketa ori zuzendutako. Batzarrean e zeben gauza andirik erabaki ta azken itza laterriko irarlarien bazkunekoak eukiko dabe. Bakoitzari zer saneurri eguneko emon bear yakon jakiteko, zer oficio dauken jakin bear da lenengo, ugezabak diñoenetik.

MADRID

Wad-Ras zalpurdi bat txaidetik aurrera yoyala ikeratu ziran zaldiak eta arinka asi ziran. Zalpurdiak talka gogorra egin eban taxi bategaz eta zalpurdiko paluak aurpegian jo eban barruan yoyan Asensio Rey osagillea. Konarte barik eroan eben gexotegira ta taxi au oso apurtuta geratu zan.

—"Gaceta"-k dager farmazietan zer saldu daiteken eta zer ezin salde daikean drogueruak. Olan ba len bai len saldu bearko dabez orain arte daukezan gauza guztiak droguerian, eta erosi bearko dautsez farmazidunak.

"MISS ESPAÑA"

Asi dira barriro "Miss España" aututeko lanetan. Madrid'eko Semeen batzokiak egin dau bere batzarra ta taldre galanta agertu dira aintza ori lortuteko. Bestelako iñuzentekeriak dira orrelako arazoak baña, españiatarrak beste garrantzizko gauzarik ezpalego orretara joten dabe.

CORDOBA

Jose Fernandez Jimenez deritxon jauna batek, alduna izan zan lenago berau, apeileakana aldu da Cabello lapiedra ango goberndore izan zanaren aurka ausiarloa agertu gura dabelako. Epailleak lotuteko agindu dau Cabello jaun ori. Eta lagiak aginduten daben denporan epinten ezpadau txindia etxeak kentzeko erabakia artu dabe. Cabello orrek bide barik at jaurti ei eban ba Fernandez jauna.

BAKALDUNTAR GASTEDIJA

Bakalduntar gastedijak oturuntza andi bat egiteko ustea eban baña gobernuak debekau dautse. "Heraldo de Madrid" orri baten dakar irurogeta amar zirala oturuntza orretarako izentauak egozanak.

IKASLEAK

Irakastola nagusian sarata andiak izan ziran atzo. Opor dagienak ez eutsen itxi besteai sartzen. Irakasleak alde egin eben guztiak. Katoliku gasteak eldu ziran gobernaziñora len bai len irakastolak zabaldu dagiezala eskatuten. Zazpi ikasle zauritu dabez eta beste amar bat atxillotu.

EUZKELDUNAI

Euzkelduna: Orri onetan iragarkiak ipiñi dabezanen etxeetan erosi egizu. Euzkeraren adizkideak dira. Eurak gura dabe orri oneri lagundu, txukun urten urten jagian. Zeure poza agertu egiozuo euren etxeetan erosita, eta esan guztiai EUZKADI'ko Euzkel Atalean ikusi dozuen iragarkiagatik erostera etorri zariela.

Atzerrietatik

PARIS

Mutil aldra bat batuko da Bethleem jaupariak lizenkuriearen aurka asi eban lana aurrera eroateko. Gogor aurka egingo dautse erdi billoizik ormtan jarten diran ingiai eta irakurgai lizunai. Olako bat ikusi orduko mutillen bazkunera ots egingo dabe urrutizkiñez eta onek elduko dira jaubearengana a kendu dagiela otoi egiten. Gura ezpadau len bai len erritzañen buruari dei egingo dautse. Bazkun onen burua gaste bat da, kirol zale eta oraingotia. Onela itz egin dau. Gure bazkuna ezta dedarka ibiltekoa. Umeai itzala euki bear yake. Gurasoen bazkunari yagoko ta guztiak alkartuta lan egingo dabe. Paris en eta ormtan ikusgarri lizun geyegi dagoz umeentzako. Bertakoak baña atzerrietakoak begi argiagoaz ikusten dabez olako kartelak. Ganera umeen garbitasuna loituteko baño eztira. Betlheem jaupariak legez jasango doguz al doguzan guztiak eta guk erritzañak albora jaurti barik eurai lagundu gura dautsegue. Gogo ta soiñeko garbitasuna gura dogu. Eta uste dogu geure alde jarriko dirala geyenak onetan.

COLONIA

Eun eta bat urte bizi ostean Hamm uriko gizonik zarrena zan Pieper jauna il da. Zuribi batetik igon eban egun batean eta jausi zan bertatik bera. Zauri andi bat buruan zabaldu yakon. Zauriak etziran arrisku andikoak baña osatuten egoan artean bularrekoa eldu yako ta onela il da.

MOSCU

Argitaldu da batzarrean Voroshilof jaunak esan eban itzaldia. Uste dau datorren gudeak eztauzala eurak atrapauko lotan, ba gertauta egongo ei dira. Datorren gudea jakintza bitartez egingo dala uste dau eta Lidendorff'en itz batzuk azkenean dakaz aberatzak gudea itxadoten dabela azaldurik.

INDIA

India'ko ordezkoak agertu dau gobernuak erabaki barri bat artu gura dabela gatsezko arazo orreitan. Gandhi'ren alderdikoen bakerako izango ei da eurak gura dabena onetan emoten bayake. Laster uste dabe gobernuak emongo dabela politika arazokai ik atxikillo dagozanen azkatasuna.

ROMA

Batu dira italiar gizon aldra batzuk laterriko salerosketa bide batera ekarteko. Batzarreko buruak esan dau eztala bide onetatik salerosketa gitxiagotu, saldu al dana bakarrik olaetan egin bear ei da.

ESSEN

Erritzañak etxeriketxe ibilli dira eta comunista direanen artean iskillu askotaz eman dabez. Ganera agiri asko koixu dabez erriari dei eginik jeiki daitela jaurlean aurka. Guztian epailleakana eldu bearko dabe laterriaren aurkako oben onetzaz erantzuteko.